

ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERAK BURUTZEAGATIKO TASEN ORDENANTZA ARAUTZAILEA

UDAL KIROLDEGIA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. Artikulua

Entitate lokal honek, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauari jarraiki, Eranskinean zehazten diren tasak ezarri eta exijitzen ditu zerbitzu publikoak eskaini eta jarduerak burutzeagatik. Ordenantza honetan adierazten diren arauen arabera ezarri eta exijitzen dira tasa horiek, eta haren barruan geratzen dira jasota.

2. Artikulua

Ordenantza hau entitate lokalaren lurralde eremu osoan aplikatuko da.

II. EGINTZA EZARGARRIA

3. Artikulua

Administrazio Lokalaren aldetik zerbitzu bat eskaintzeak edo jarduera bat burutzeak eratzten du zergagaia, dela eskatua izan delako, dela partikularren egintza edo hutsegiteen ondorioz zeharka probokatu delako.

III. SUJETO PASIBOA

4. Artikulua

1. Honako hauek izango dira, zergadun bezala, subjektu pasiboak: pertsona fisikoak zein juridikoak, eta Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak 33. artikuluan aipatzen dituen entitateak, zerbitzu edo jarduerak eskatzen dituztenean edo haien onura edo eragina jasotzen dutenean.

2. Zergadunaren ordezkotzat hartuko dira:

a) Etxebizitza edo lokalen okupatzaileei onura edo eragina dakarkieten zerbitzu edo jarduerengatik ezarritako tasetan: higiezin horien jabeak. Horiek, hala dagokienean, onuradun desberdinei jasanarazi ahal izango dizkiete kuotak.

b) Suhiltzaile zerbitzuengatik, aurrien prebentzioagatik, eraikuntza eta eraispin zerbitzuengatik, salbamendukoengatik eta, oro har, pertsona eta ondasunak babesteko zerbitzuengatik ezarritako tasetan, zerbitzuaren mantenimendua barne, arriskuaren entitate edo sozietate aseguratzaileak.

c) Lurzoruari eta hiri antolaketari buruzko araudian jasotako hirigintza lizentziak emateagatik ezarritako tasetan: obren eraikitzaileak edo kontratistak.

5. Artikulua

Tasak ordaintzera behartuta daude:

a) partikularren eskariz egindako zerbitzu edo jardueren kasuan, eskaera egin dutenak.

b) partikularrek eskatu ez baina, horien egintza edo hutsegiteengatik, derrigorrezkoak gertatu diren zerbitzu edo jardueren kasuan, egintza edo hutsegite horiek leporagarri dituztenak.

6. Artikulua

Ordenantza honetatik eratortzen diren zerga zorretan, subjektu pasiboarekin batera, tarifak aplikatzeko arauetan aipatzen diren pertsonak ere erantzungo dute.

IV. SALBUESPENAK, MURRIZKETAK ETA HOBARIAK

7. Artikulua

Salbuespenak edo bestelako onura fiskalak aplikagarri diren xedapen orokorretan ezarritakoaren arabera emango dira.

V. OINARRI EZARGARRIA

8. Artikulua

Oinarri ezargarria zerbitzua gauzatzen den unitate bakoitzak eratzten du, Eranskinean jasotakoaren arabera.

VI. KUOTA

9. Artikulua

1. Zerga kuota tarifa bat, espreski erabakitako kopuru finko bat edo, bestela, bi prozedurak batera erabiliz finkatuko da, Eranskinean ezarritakoaren arabera.

VII. SORTZAPENA

10. Artikulua

1. Zerbitzua edo jarduera egiten denean sortzen da tasa.

VIII. LIKIDAZIOA ETA DIRUSARTZEA

11. Artikulua

Administrazio Lokalak kontzeptu bakoitzaren likidazioa egingo du, eta likidaturiko kopurua eskudirutan ordainduko da Eranskinak exakzio bakoitzerako ezartzen dituen arau partikularrei jarraituz.

IX. TASEN KUDEAKETA

12. Artikulua

Ordenantza honetan arautzen diren tasak likidatu, bildu eta ikuskatzeari dagokion guztian, eta, halaber, zerga urrapenak kalifikatu eta kasu bakoitzean dagozkien zigorak ezartzerakoan, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrean jasotakoa aplikatuko da.

X. AMAIERAKO XEDAPENA

Ordenantza hau aldarazten duen akordioa eranskinean adierazten den batzarrean hartutakoa da. Ondorioak data horren hurrengo urteko urtarrilaren lehenetik sortuko ditu, derogatu edo aldatzea erabakitzen ez den bitartean.

E R A N S K I N A

Azken aldaketaren onarpen data:	2019-10-10
---------------------------------	------------

KIROLDEGIKO BAZKIDETZA: Kiroldegiko bazkidetza, udako igerilekuaren zerbitzua barne. Igerileku estalia, estaligabea (udan) eta giarretze gela erabiltzeko eskubidea ematen du. Kiroldegiko bazkidetza guztiek ikastaro eta alokaketetan onurak dituzte.

- A) Urteko bonoa: uztailaren 1etik hurrengo urteko ekainaren 30era.
- B) Udako hiruhilabeteko bonoa: igerilekuaren denboraldia

	URTEKO BONOIA	UDAKO 3 HILABETEKO BONOIA
Banakako heldua:	151,10 €	103,80 €
Banakako gaztea:	81,45 €	51,90 €
Banakako jubilatua (ez aktiboa):	112,55 €	78,00 €
Familiarra:	232,15 €	158,05 €
Familiar jubilatua edo pentsionista (ez aktiboa):	164,85 €	113,80 €

KIROLDEGIKO BAZKIDETZA: Kiroldegiko bazkidetza, udako igerileku estaligabearen zerbitzurik gabe. Igerileku estalia eta giarretze gela erabiltzeko eskubidea ematen du. Kiroldegiko bazkidetza guztiek ikastaro eta alokaketetan onurak dituzte.

- A) Urteko bonoa: uztailaren 1etik hurrengo urteko ekainaren 30era.
- B) Lehen sei hilabeteko bonoa: urtarrilaren 1etik ekainaren 30era
- C) Hiruhilabeteko bonoa: (urtarrila-martxoa; apirila-ekaina; uztaila-iraila; urria-abendua)

	URTEKO BONOA	6 HILABETEKO BONOA	3 HILABETEKO BONOA
Banakako heldua:	115,30 €	86,35 €	57,85 €
Banakako gaztea:	57,85 €	43,30 €	28,75 €
Banakako jubilatua (ez aktiboa):	86,55 €	65,00 €	43,30 €
Familiarra:	169,00 €	126,75 €	84,40 €
Familiarra jubilatua (ez aktiboa):	126,65 €	95,05 €	63,15 €

IGERILEKU ESTALIKO BONOA: Igerileku estalia erabiltzeko eskubidea ematen du soilik.

- A) Urteko bonoa: uztailaren 1etik hurrengo urteko ekainaren 30era.
- B) Lehen sei hileko bonoa: urtarrilaren 1etik ekainaren 30era
- C) Hiruhileko bonoa: (urtarrila-martxoa; apirila-ekaina; uztaila-iraila; urria-abendua)

	URTEKO BONOA	6 HILABETEKO BONOA	3 HILABETEKO BONOA
Banakako heldua:	92,35 €	69,35 €	46,05 €
Banakako gaztea:	46,25 €	34,75 €	23,05 €
Banakako jubilatua (ez aktiboa):	69,35 €	51,30 €	34,75 €
Familiarra:	138,75 €	104,05 €	69,50 €
Familiarra jubilatua (ez aktiboa):	103,85 €	77,95 €	52,10 €

IGERILEKU ESTALIGABEKO BONOA: udako denboraldian igerileku estaligabea erabiltzeko eskubidea ematen du soilik.

Banakako heldua:	57,85 €
Banakako gaztea:	28,75 €
Banakako jubilatua (ez aktiboa):	43,30 €
Familiarra:	84,40 €
Familiarra jubilatua (ez aktiboa):	63,15 €

MUSKULAZIO GELAKO BONOA:

	HIRUHILEKO BONOA
Bonoa:	46,20 €

HAMAR ERABILERA KO BONO A: Kiro ldegiko edozein zerbitzu erabiltzeko eskubidea ematen du. Pertsonala da eta urteko iraupena du.

	10 ERABILERA KO BONO A
Heldua:	37,10 €
Gaztea:	19,90 €

10EKO TALDEKO BONO A: Kiro ldegiko edozein zerbitzu erabiltzeko eskubidea ematen du.

	TALDEKO BONO A
Heldua:	37,10 €
Gaztea:	19,90 €

EGUNEKO SARRERA:

	EGUNEKO SARRERA
Heldua:	5,35 €
Gaztea:	2,85 €

SAUNA:

	EGUNEKO SARRERA	10 SAI OETA KO BONO A
Bazkideak:	2,70 €	20,45 €
Ez bazkideak:	Sarrera + 2,70 €	58,95 €

ALOKAIRUA K:

	BAZKIDEAK	EZ BAZKIDEAK
Tenis pista:	3,00 €/ordua	Sarrera + 3,00 €/ordua
Pilotalekua:	6,05 €/ordua	Sarrera + 6,05 €/ordua
Kantxa:	15,25 €/ordua	Sarrera + 15,25 €/ordua
	ZELAI ERDIA	ZELAI OSOA
Futbol zelaia:	51,40 €/ordua	82,25 €/ordua
(Ez dago aldagela aukerarik)		

IKASTAROA K:

	HILABETEKOA	HILABETEKOA EZ BAZKIDEAK	HIRU HILABETEKOA	HIRU HILABETEKOA EZ BAZKIDEAK
Helduen igeriketa (20 saio):	51,65 €	66,45 €	-----	-----
18 urtez azpikoen igeriketa (20 saio):	51,65 €	61,15 €	-----	-----
Igeriketa terapeutikoa:	32,75 €	47,55 €	-----	-----
Haurdunaldikoaren igeriketa:	32,75 €	47,55 €	-----	-----
Haurtxoen igeriketa:	24,60 €	34,10 €	-----	-----
Aerofit:	26,25 €	41,05 €	62,95 €	107,35 €
Bodytrining:	26,25 €	41,05 €	62,95 €	107,35 €
Gimnasia erritmikoa:	15,70 €	25,20 €	37,05 €	65,55 €
Adinduen soinketa:	39,35 €	39,35 €	94,35 €	94,35 €
Mantenimendu soinketa:	39,35 €	54,15 €	94,35 €	138,75 €
Pilates:	51,00 €	65,80 €	122,45 €	166,85 €
Ziklo indoor:	51,00 €	65,80 €	122,45 €	166,85 €
GAP:	26,25 €	41,05 €	62,95 €	107,35 €
Zumba (2 saio):	26,25 €	41,05 €	62,95 €	107,35 €
Funky:	26,25 €	35,75 €	62,95 €	91,45 €

Hilabeteko gehigarria ikastaroetan kiroldegiko bazkide ez direnentzat:

Helduak:	14,80 €	14,70 €
Gazteak:	9,50 €	9,45 €

* Galdutako edo hondatutako bazkide-txartel berria egitea: 4,65 €

* Ikastaroetako tarifa hauek 2020ko irailetik aurrera aplikatuko dira.

- Aplikatzeko arauak:

1.- Pentsionista kontzeptua:

Pentsionista ez aktiboek dute jubilatutako pentsionista tarifa hartzeko aukera. Honekin kontsideratzen da pentsionista izan eta lanean ari denak ez duela tarifa honetarako eskubiderik. Eskatu beharreko egiaztagiriak: pentsionista izatearen onarpen agiria eta errenta aitortpena (errenta aitortpenik ezean, Ogasunaren ziurtagiria)

2.- Pentsionista familiarra kontzeptua:

Familia buruak, bi dauden kasuan, biek izan behar dute pentsionista ez aktibo. Eskatu beharreko egiaztagiriak, berdinak.

3.- Jubilatutako familiarra kontzeptua:

Familia buruak, bi dauden kasuan, biek izan behar dute jubilatutako.

Eskatu beharreko egiaztagiriak, berdinak.

4.- Familia kontzeptua:

Familia barruan, senar-emazteak sartzen dira eta hauek izan ditzaketan seme-alabak. Berdin seme-alabarik ez badute. Familia bezala sexu bereko bikoteak sartzen dira. Eskatu beharreko egiaztagiriak: famili liburua. Bikotea, etxe berean erroldatuta egon behar da, edo izatezko bikote errejistroan errejistratuta.

5.- Familia barruan 18 urtez gorako seme-alabak:

Familia barruan 18 urte arteko seme-alabak sartzen dira. 18 urtez gorakoen kasuan, familia barruan sartzeko aukera bada, familia buruak egin behar du eskaera eta ikasle izatearen edo langabezian egotearen agiria ekarri.

6.- 10 erabilerako bonoak:

Bonoa pertsonala da eta ezingo zaio inori utzi. Bonoen erabilera balioa urtebetekoa izango da.

7.- 10 taldeko bonoak:

Gazte tarifa aplikatzeko guztiek izan behar dute 18 urtetik beherakoak. Bestelakoan helduen tarifa aplikatuko da. 10etik gorako taldeetan proportzionalki gehituko da tarifa.

8.- Eguneko sarrera:

Gazte eta helduen bereizketa egiten da: gaztea kontsideratuko da 18 urte bete gabe dituen.

9.- 3 urtez beheko haurrak:

Sarrera dohain izango dute.

10.- Hiru/sei hilabeteko bazkideztaren baja ematea:

Hiru eta sei hilabeteko bazkideztak balio epea amaitzean automatikoki baja izango dira. Berritzeko eskaera egin behar da. Bazkideztza egin ondoren ez dago baja emateko aukerarik.

11.- Urteko bazkideztaren baja ematea:

- Helbideratu gabekoak:

Urteko bazkideztak balio epea amaitzean automatikoki baja dira. Ordainketa aurrez eginez gero bazkideztza berritu egingo da, eta baja eman eta ondoren ordaintzen badute, ordainketa egitean emango da alta.

- Helbideratuak:

Urteko bazkideztak balio epea amaitzean automatikoki berritzen dira. Aurrez adierazi dutenei baja ematen zaie kobratu aurretik. Helbideratuta izanda erreziboa itzultzen dutenei 2 hilabeteko epean onartzen zaie baja, betiere erabilpenik egin ez badute. Epe hau igaro ondoren ez da inongo itzulpenik egingo.

12.- Bazkideztaren kontzeptua:

Bazkideztza pertsonala da eta ezingo zaio inori utzi. Bazkideztaren onurak, erabileran, alokaketan, ikastaroetako tarifetan, bazkideztza egiten den egunetik aurrera aplikatuko dira, inoiz ez atzerapenez.

13.- Eguneko sarreraren kontzeptua:

Sarrera norberarena da eta ezingo zaio inori utzi. Edozein gune erabiltzeko eskubidea ematen du, bat edo denak. Sarrera egunekoa da.